

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

HEZKUNTZA
ETA KIROL
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
Y DEPORTE

**ESTEREOTIPATUTAKO GENERO ROLEN
PRESENTZIA IKASLE ETA IRAKASLEEN
EGUNEROKOTASUNEAN
GRADU AMAIERAKO LANA**



EGILEA: Argüelles Maisterrena, Itsasne

ZUZENDARIA: Apaolaza Llorente, Dorleta

2019/2020

LABURPENA

Lan honetan bizi garen gizarte binarioan dauden genero rol eta estereotipoen inguruko ikerketa bat egin da. Gizarte binario honetan, gizon eta emakumeei estereotipatutako rol konkretu batzuk esleitu zaizkigu, gure bizitzaren oinarri bihurtu direnak eta era berean, gure bizimodua bideratu dutenak. Genero estereotipo hauek historian zehar transmitituak izan dira eta gizarteak behin eta berriro erreproduzitu ditu. Erreproduzio horretan, eskolaren papera erabakigarria izan da, bertan estereotipatutako genero rolek indar handia izan dutelako.

Gauzak horrela izanik, lan honen bitartez, ikasleen eta irakasleen egunerokotasunean estereotipatutako genero rolek duten presentzia aztertu da. Horretarako, Gasteizko Adurtza ikastetxeko 5. mailako ikasleei eta Lehen Hezkuntzako tutoreei galdetegi bat pasa zaie eta bertan lortutako datuak aztertu dira.

Aztertutakoarekin ondorioztatu daiteke, ikasleen eta irakasleen egunerokotasunean estereotipatutako genero rolek presentzia izaten jarraitzen dutela. Beraz, eskolan hezkidetzaren beharra nabarmena da, berdintasunean oinarritutako gizarte baten aldeko apostua egiteko eta eraldaketa hori bermatzeko.

Hitz-gakoak: generoa, genero rolak, estereotipoak, genero pertzepzioa, jarrera eta trebetasunak, eskola, jostailuak, kirola eta hezkidetzak.

RESUMEN

En este trabajo se presenta la investigación llevada a cabo sobre los roles de género y los estereotipos que hay en la sociedad binaria en la que vivimos. En esta sociedad, a los hombres y a las mujeres se nos han atribuido unos específicos roles estereotipados, los cuales se han convertido en la base de nuestro modo de vivir y al mismo tiempo, han encaminado nuestras vidas. Los estereotipos de género han sido transmitidos durante la historia y la sociedad los ha reproducido una y otra vez. En esa reproducción, el papel de la escuela ha sido fundamental, puesto que en ella los estereotipados roles han tenido mucha fuerza.

Por todo esto, mediante este trabajo se ha querido analizar la presencia de los roles de género en la vida cotidiana de los alumnos/alumnas y profesores/profesoras. Para ello, a los alumnos/alumnas de 5º de primaria y a los tutores de primaria de la escuela Adurtza situada en Gasteiz, se les ha formulado una encuesta y se han analizado los datos obtenidos.

Mediante lo que se a analizado se puede decir que en la vida cotidiana de los alumnos/ alumnas y profesores/profesoras los estereotipos de género siguen teniendo una importante presencia. Por ello, en las escuelas es necesaria la coeducación, dandole pie a una sociedad basada en la igualdad.

Palabras clave: género, roles de género, estereotipos, la percepción del género, actitudes y habilidades, escuela, juguetes, deporte y coeducación.

ABSTRACT

The aim of this research is to investigate about gender roles and stereotypes that exist in the binary societywe live in. In this binary society, both, men an women have been attributed specific stereotyped roles, which setted the basis of our lifestiles and, at the same time, guided our lives. Gender stereotypes have been transmitted generation-to-geneation and the binary society reproduced them over and over again. School has always have a jey role in this reproduction, since gender roles were the basis of it.

The presence of gender roles in daily life tasks has been investigated. To do so, 5th graders in Adurtza ikastola, Gasteiz, have been surveyed and the data obtained has been analyzed..

The data showed that gender stereotypes still remain in Primari Education students. For this reason, schools new policy should be based on coeducation with the only purpose of making this a better society based on equality.

Key words: gender, gender roles, stereotypes, gender perception, attitudes and skills, school, toys, sports and coeducation.

AURKIBIDEA

1. SARRERA	4
2.MARKO TEORIKOA	5
2.1.KONTZEPTUAK ARGITZEN	5
2.2.GENEROA HEZKUNTZAN: IKASLEAK ETA IRAKASLEAK	6
2.2.1. GENEROAREKIKO PERTZEPZIOA IKASLEENGAN ETA IRAKASLEENGAN	7
2.2.2. GENEROAREN ISLADA GURE KLASEETAN: KIROLAK ETA JOLASAK.	9
2.3.HEZKUNTZA ETA LEGEAK	10
2.3.1. HEZKUNTZA ETA HEZKIDETZA	10
2.3.2.HEZKUNTZA LEGEAK	12
2.3.3. LEHEN HEZKUNTZAKO EGOERA: HEZIBERRI	14
2.3.4. ONDORIOAK	15
3. METODOLOGIA	16
3.1. HELBURU NAGUSIA ETA ERABILITAKO METODOLOGIA	16
3.2. TALDEAREN EZAUGARRIAK	17
3.3. INKESTEN DISEINUA	18
3.3.1. AZPI-HIPOTESIAK ETA KATEGORIAK	18
4. EMAITZAK ETA ANALISIA	24
5. ONDORIOAK	36
6. HOBETZEKO PROPOSAMENAK	38
7. BIBLIOGRAFIA	40
8. ERANSKINAK	42

1. SARRERA

Gizartea, gizon eta emakumeon arteko bereizketa nagusi eta nabarmen baten isla da. Sortzen garen momentutik, gure sexuari (genitalari) dagokion generoak gure bizitza guztia bideratzen eta baldintzatzen du. Horrela, mundura agertzen garen momentutik aurrera, esleitu zaigun generoari dagozkion estereotipatutako zenbait rol eta portaera bereganatzen hasten gara, munduak gutaz espero duen hori ikasiz eta berproduzituz.

Genero estereotipo hauen berproduzioan, hezkuntzaren papera nabarmentzekoa da, bertan gizarteko egitura islatzen eta bermatzen delako, eta beraz genero estereotipoak ere ematen direlako. Era berean, hezkuntza gizarteko egitura berproduzitzeko tresna baliogarria den bezala, kontrako norantzan ere indar handikoa izan daiteke, hau da, eskola genero estereotipoekin apurtzeko oso tresna garrantzitsua da.

Gauzak horrela izanik, lan honen bitartez eta aurrean Lehen Hezkuntzako graduak azken praktikek eskaini didaten aukeraz baliaturik, ikasleen eta irakasleen egunerokotasunean estereotipatutako genero roletan duten presentzia aztertu nahi izan dut. Horretarako, praktiketako ikastetxeko zenbait ikasle eta irakasleei galdetegi bat pasa diet.

Beraz, hurrengo lerroetan garatuko den ikerketa lanak jarraian plazaratuko den egitura izanen du: lehenengo atalean, marko teorikoa dago. Bertan, lanaren haria jarraitzeko zenbait kontzeptu definitzen dira, hala nola; generoa, maskulinitatea, feminitatea eta genero rola. Halaber, generoak hezkuntzan duen presentziaz solastatzen da, ikasle zein irakasleen pertzepzioaren ikuspuntutik. Azkenik, generoari dagokionean hezkuntzak indarrean dituen legeak plazaratzen dira. Bigarren atalean, erabilitako metodologiaren inguruan hitz egingen da, lanaren nondik-norakoak azalduz. Hirugarren atalean, emaitzetan eta hauen analisisan sakonduko da. Ondoren, laugarren atalean, ikerketaren ondorioak azalduko dira, lortutako emaitzak marko teorikoko ideiekin harremanduz. Azkenik, bosgarren atalean, nire lana hobetzeko proposamenak azalduko dira.

2.MARKO TEORIKOA

2.1.Kontzeptuak argitzen

Estereotipatutako genero rolen inguruan eginen den ikerkuntza kokatzeko eta garatzeko asmoz, generoa zer den ezagutzea beharrezkoa izanen da. Butler-en hitzetan, generoa gorputz batek kulturalki hartzen duen esanahia da, hau da, sozialki eratzen eta barneratzen da, kontzeptu ikasi gisa eta kultura eta hezkuntzaren bidez jasotzen da. Beraz, sexuaren eta generoaren arteko bereizketa nabaria da. Sexua saihestezina eta anatomikoki bereizgarria den bitartean (genitalen arabera), generoa, maskulinoa zein femeninoa, kulturalki eta sozialki eraikia da. Horrela, aipaturiko bi generoak, femeninoa eta maskulinoa, gertaera naturalak ez izatearen ideiatik sortzen da, sorkuntza sozial eta kultural bati atxikituz (Varela, 2014). Honen harira eta generoaren kontzeptua hobeto ulertzeko asmoz, Simone de Beauvoir-en esaldi famatua plazaratzen da: “bat ez da emakume jaiotzen, emakume izaten bukatzen/ikasten du, eta alderantziz gizonezkoen kasuan” (Collin, 2008).

Genero femeninora eta maskulinora bueltatuz, feminitatea eta maskulinitatea zer diren definitzea beharrezkoa izanen da. Feminitatea, emakumeen baloreei, ezaugarriei, portaerei eta naturari atxikitzen zaion kontzeptua da. Maskulinitatea ordea, kontrako norantzan garatzen da, hau da, gizonezkoen baloreei, ezaugarriei, portaerei eta naturari atxikitzen zaion kontzeptua da. Modu honetan, generoaren inguruan hitz egiten dugunean, gizartean bi genero daudela kontuan hartuko dugu. (Moya, Páez, Glick, Fernández, Poeschl, 2002).

Kontzeptu hauetan arreta jarritz gero, esan dezakegu bakoitzari, feminitatearekin edo maskulinitatearekin, lotzen zaizkien rol batzuk ezartzen zaizkiola. Rolak, pertsonen aurrera eramaten dituzten funtzioak dira, leku eta egoera konkretuetan. Funtzio hauek norberaren askatasun propioetik edo inposizio sozial desberdinengatik garatzen dira (Díez, 2019). Beraz, orain arte ikusi dugun genero desberdintasunarekin harreman zuzena izango lukete.

Zehatzago esanda, genero rolek, rol sozial konkretu bati egiten diote erreferentzia. Rol sozial honek, gizonezkoengandik eta emakumezkoengandik espero diren funtzio horiek guztiak hartzen ditu barne. Horrela, genero rolak gizarteak inposaturiko arau desberdinetan oinarritzen eta garatzen dira, rol femeninoak eta rol maskulinoak sortuz (Maranon, 2018).

Genero rolen beste definizio bat emateko asmoz eta Luisa Antolinek proposatzen duen ideia azalduz, Luisak rola azaltzeko antzerkiaren metafora erabiltzen du. Hark dioenez, rola funtzio, eginbeharreko eta paper bati egiten diote erreferentzia. Gizonek eta emakumeek sortzen diren momentutik funtzio konkretu bat dute, sexuaren arabera esleitzen zaiena. Funtzio horrek, nola jokatu, jantzi, begiratu, amestu, lan egin, hitz egin eta besteekin nola harremandu zehaztuko du. Horrela, emakumeak eta gizonak sortzen diren momentutik aktore bilakatzen dira eta paper hori betetzen duten moduaren arabera, gizarteak onartu edo baztertuko ditu (Varela, 2014).

Era berean, emakumeek haurrak direnetik haien izaeraren edertasuna gizonezkoen izaerarekin zerikusirik ez duten ezaugarriekin lotzen dute, horrela, hainbat portaera barneratzen dituztelarik. Gizonezkoen kasuan ere gauza bera gertatzen da, haurrak direnetik, haien izaeraren bikaintasuna emakumezkoen izaerarekin zerikusirik ez duten ezaugarriekin lotzen dute, hauei ere zenbait portaera irakatsiz eta inposatuz (Varela, 2014).

Aipaturiko kontzeptu hauek guztiak, maila desberdinetan, gaur egungo hezkuntza sisteman ematen dira, jarrera sexistak bultzatuz, nahiz eta azken urteotan hezkidetzan nagusitzeko ahaleginak egiten ari diren. Beraz, hurrengo orrialdeetan, genero rola hezkuntzan duten agerpenaz eta eraginaz solastatuko da.

2.2. Generoa hezkuntzan: ikasleak eta irakasleak

Genero desberdintasunak hezkuntzan izan duen presentzia urteetan zehar aldatuz joan da. Garai batean, 60-70 hamarkadetakoko frankismoan, eskolak bi generoak banatu egiten zituen, mutilen eskolak eta nesken eskolak sortuz. Gainera, bi eskola hauetan lantzen eta irakasten zituzten edukiak desberdinak izaten ziren, neskek eta mutilek biologikoki gaitasun desberdinak zituztela pentsatzen zelako. Gauzak horrela izanik, hezkuntza gizarteko genero estereotipoak indartzen eta berproduzitzen jarraitzeko tresna esanguratsua bihurtu zen. Era berean, irakasleak ikasleen generoaren arabera desberdin harremanetan ziren, genero estereotipoak erreproduzitzen (Menéndez, Calvo, 2005).

Denborak aurrera egin ahala gauzak aldatu eta gaur egun eskola mixtoak ditugun arren, hezkuntzak gizartean indarrean dagoen sistema erreproduzitzeko tresna esanguratsua izaten jarraitzen du. Gure gizarteko errealitate bat estereotipatutako genero rola izanik eta eskola gizartea erreproduzitzen duen agente bat bezala definitu denez, gizarteko errealitate hori hezkuntzaren bidez erreproduzitzen da, erreproduzio hori garai batean baino inplizituagoa bada ere (Guerra, 2002).

Beraz, jarraian, estereotipatutako genero rolek ikasleen eta irakasleen egunerokotasunean duten presentzia horren eragina zehatzago aztertuko da, esparru zehatzetan arreta ipiniz.

2.2.1. Generoarekiko pertzepzioa ikasleengan eta irakasleengan

Pertzepzioa ingurunetik jasotzen dugun horretatik identifikatzen, interpretatzen eta hautematen dugun horri deritzo. Ingurunetik jasotzen dugun hori zentzumenen bidez bereganatzen da (ikusmena, usaimena, daztamena, entzumena eta ukimena). Hala ere, pertzepzioa ez da zentzumenetatik jasotzen dugun horretan bakarrik gelditzen, aitzitik, pertsonon aurre-ezagutzek, afektibitateak eta kulturak eragin handia izaten dute, hiru ezaugarri hauek pertzepzioa guztiz bideratzen dutelako.

Esistitzen diren pertzepzio guztien artean, pertzepzio soziala ekarriko dugu gurera, garatuko den ikerkuntzan nagusituko den pertzepzioa delako. Pertzepzio soziala, pertsonok gainerako pertsonak hautemateko, harremantzeko eta haien jarrerak aztertzeko eta interpretatzeko erabiltzen dugun pertzepzioa da. Horrela, pertzepzioaren bidez inguratzen gaituen errealitatea ulertzen dugu (Gilberto Leonardo, 2004).

Pertzepzio sozial honek azpi multzo batzuk ditu eta azpi multzo horietako bat guri interesatzen zaigun generoarekiko pertzepzioa da. Generoarekiko pertzepzioa, emakume edo gizona izateak esan nahi duen hori eta horri ematen zaion balio zein ezaugarriei deritzo. Pertzepzio hau, aurretik aipatutako pertzepzio soziala bezala, ingurunetik bildutako informazioan, afektibitatean eta kultur ezaugarrietan oinarritzen da.

Hurrek eta beraz ikasleek duten generoarekiko kontzientzia eta pertzepzioa hamar urterekin hasten dira garatzen. Adin honetan, haurra emakume eta gizona izatea zer den barneratzen hasten da, genero bakoitzari sozialki aplikatzen zaizkion patronak, jarrerak eta baloreak bereganatuz. Horrela, pertzepzio horrek gainerako pertsonak sailkatzeko eta multzokatzeko eragin eta indar handia hartzen du (Ochoa, 2017).

Ikasleen generoarekiko pertzepzioa estereotipoen ikuspuntutik aztertzeko eta haren presentziaren berri izateko, Txileko Antofagastan hiriko unibertsitatean, ikerkuntza bat egin zen. Ikerkuntza horretan, indarrean dauden genero rol estereotipatuak genero konkretuekin lotzen ziren edo ez jakiteko, bertako 80 ikasleek parte-hartu zuten eta atara ziren ondorioak honako hauek izan ziren (Cárdenas, González, Calderón, Lay, 2009):

1- Ikerkuntzan parte-hartu zuten subjektuek emakumezkoei zenbait balore eta jarrera atxikitu zizkieten; hala nola, ulerkorra, goxoa, maitagarria, sentibera, txukuna, lasaia eta abar. Hala ere, esan beharra dago, emakumezkoek eta gizonezkoek haien buruak definitzerako orduan, haien berezko generoari atxikitzen ez zaizkion zenbait balore erabili zituztela, hala nola; ausarta, arduratsua eta abar. Beraz, aldaketa bat ikusi ahal izan zen subjektuek orokorrean baloreak generoaren arabera banatzean eta haien buruak definitzerako orduan.

2- Emakumeak eta gizonek dituzten aurreiritziak gehienetan ez ziren modu kontzientean garatu, aitzitik, oso modu automatikoan eman ziren.

3- Gizonezkoen kasuan, aurreiritzi eta estereotipo hauek anitzez negatiboagoak izan ziren.

Beraz, ikerkuntza honek erakusten duen moduan, ikasleen generoarekiko pertzepzio estereotipatuak indarrean jarraitzen du, generoak indar handia izanez eta mundua banaketa horrekin ulertuz. Hala ere, generoarekiko pertzepzioaren eragina ez da ikasleengan bakarrik ematen, aitzitik, irakasleen kasuan ere presentzia handikoa da. Irakasleek generoari buruz dituzten ideia eta eskema estereotipatuak, haien jarrerek eta generoak markatzen dituen espektatibek eragin zuzena dute ikasleen pertzepzio akademikoan.

Honi lotuta pigmalion efektua agertzen zaigu. Pigmalion efektuak hiru aspektu biltzen ditu: zerbaitetan sinistea, hori gertatuko dela sentitzea eta hori gertatzeko mezuak garatzea. Efektu honen bidez, aldez aurretik aurre-iritzi zehatz batzuen bidez, pertsona batengan espektatiba edo ideia batzuk finkatzen dira. Finkatu diren espektatiba edo ideia horietan sinisten da eta horiek betetzeko jarrera hartzen da. Horrela, sortu ditugun espektatibek (positiboak zein negatiboak izan daitezke) beste pertsona horrengan eragin zuzena izaten dute (Sánchez, Lopez, 2005).

Efektu hau, hezkuntzan, generoaren pertzepzioari aplikatzen zaio, hau da, irakasleek estereotipatutako genero rolez dituzten ideiek eta espektatibek ikasleen pertzepzioetan eta errendimenduan eragin zuzena dute (Vargas, 2015).

Honen erakusletzat, Kataluniako Oberta unibertsitatean egin zen ikerkuntza daukagu (Ibáñez, 2013). Ikerkuntza honen arduradura izan zen Milagros Sáinzek dioenez, irakasle anitzek mutilak despistatuagoak eta axolagabekoak direla adierazi zuten, neskak langileagoak eta zentratuagoak direla esatearekin batera.

Era berean, nota onak eta inteligentzia gizonezkoei atxikitu zieten, emakumezkoen nota onak esfortzuari zor zaiola esanez. Gainera, aipaturiko aurreiritzi eta espektatiba

hauek, ikasleen kasuan ere ikusi ahal izan ziren. Emakumezko gehienek haien burua langiletzat hartu zuten eta gizonezko gehienek nahiko alferrak eta axolagabeak zirela ere esan zuten. Gainera, emakumezko gehienek hizkuntzetan hobeak zirela esan zuten eta gizonezkoek haien buruak matematiketan goraiatu zituzten.

Halaber, irakasleek ikasleei ematen dieten trataerari dagokionez, Haur Hezkuntzatik hasita ikasle diren neskek eta mutilek trataera desberdina jasotzen dutela manifestatu dute. Mutilei anitzez arreta gehiago eskaintzen zaie eta haien protagonismoa indartzeko aukera gehiago ematen zaie, hala nola; hitz egiterako orduan, galderak egiterako orduan, ekintza desberdinak burutzerako orduan eta abar. Era berean, irakasleek orokorrean ez dute ikasleei generoari dagokionean trataera desberdina ematen dietela onartzen eta hezkuntzan gizartean dauden estereotipatutako genero rolak berproduzitzen direla ez dute argi ikusten (Pérez, 1999).

Gauzak horrela izanik, irakasleek duten generoarekiko pertzepzioak hezkuntzan eragin handia du, bai ikasleak tratatzeko eta ikusteko moduan eta baita pigmalion efektuaren bidez hauen pertzepzio eta errendimenduan ere.

2.2.2. Generoaren islada gure klaseetan: kirolak eta jolasak.

Generoak hezkuntzan duen presentzia erabatekoa da, aurretik esan den bezala hezkuntzan gure gizartea islatzen delako eta gizartean generoaren bereizketa oso agerikoa delako. Agerpen horren adibidetzat, bertan ematen den kirolarekin eta jolasekin lotutako bi errealitateak ditugu. Bi errealitate hauek aipatzearen zergatia, gerora garatuko den ikerkuntzan parte-hartu duten ikasleen egunerokotasunean kirolak eta jolasek duten presentzia handiari zor zaio.

Hezkuntzan generoa eta kirolarekin lotuta agertzen zaigun alorrea Gorputz Hezkuntzarena da. Oraindik, mutilak indarra, erresistentzia, aktibitatea eta agresibitatea oinarritzat duten kirolekin lotzen jarraitzen dira eta neskak aldiz, adierazpena, erritmoa, flexibilitatea eta koordinazioa behar dutenekin. Beraz, Gorputz Hezkuntzan genero estereotipoak ematen eta berproduzitzen direla ikusi daiteke.

Banaketa honen erakuslea dugu zortzi zentro publiko erabiliz egin zen ikerkuntza bat. Ikerkuntza horretan, ikasleekin izandako zenbait elkarrizketen bidez, Gorputz Hezkuntzan eta kirol munduan genero estereotipoek indar handia dutela jakin ahal izan zen. Mutilen kasuan agresibitatea eta lehiakortasuna eta nesken kasuan kooperazio, lasaitasuna eta elastikotasuna goraiatuz. Era berean, ikasleekin izan zituzten elkarrizketen bidez, mutilak kirolean hobeak direla ere adierazi zen. (Ángel, García, Zamorano, 2007).

Gorputz Hezkuntzan eta kirol munduaz gain, haurren jolasetan genero estereotipoek indar handia izaten dute. Estereotipo horien berri izateko, Andaluziako Haur eta Lehen Hezkuntzako zentro desberdineko 400 ikasleei eta Madril eta Granadako unibertsitateko 200 ikasleei elkarrizketa bat egin zitzaion (Martínez, Vélez, 2009).

Elkarrizketa horietan ikertu ziren jolasak honako hauek izan ziren: super heroiak, poltsak, siletak, garbitzeko jostailuak, erosketako orga, panpinak, sukaldea, kotxeak, helikopteroak, josteko jolasak, eraikuntza jolasak, medikuntzako jolasak, makilatzeko jolasak, play stationa, traktoreak eta abar.

Ikerkuntza honetan lortu ziren emaitzetan, jolasek estereotipo markatuak finkatu zituzten, jolasak genero konkretuekin lotuz. Gainera, %50 baino gehiagoan neutraltasunik adierazi zuen jolasik ez zen egon, aitzitik, jolas guztiek modu handiagoan edo txikiagoan estereotipoak jarraitu zituzten, emakumezkoen jolasak zaintzarekin eta emakumeei esleitzen zaizkien trebetasunekin loturik eta gizonezkoen jolasak gizonei esleitzen zaizkien trebetasunekin loturik.

Beraz, jolasen bidez estereotipatuak genero rola berproduzitzen direla argi ikusi izan da, hezkuntza arloan jolasteak duen garrantziaz jabeturik eta bertan berproduzio hori ere ematen dela azpimarratuz (Puerta, González, 2015).

Generoarekiko pertzepzio estereotipatuaz eta estereotipatuak genero rola gure geletan duten presentziaz solastatu eta gero, hezkuntza eta legetan sakonduko da.

2.3. Hezkuntza eta legeak

Estereotipatuak genero rola hezkuntzan duten errealitatearen aurrean, hezkuntza-sistemaren legediaz arduratzen direnek genero rola inguruan ematen diren arazoak deuseztatzeko asmoz, lege eta plan desberdinak garatu dituzte. Jarraian, hartutako erabaki eta sortutako lege eta planak plazaratuko dira.

2.3.1. Hezkuntza eta hezkidetzak

Aurretik aipaturiko genero rola inposaketa eta berproduzio horietan guztietan, hezkuntzaren papera erabakigarria izan da. Arestian aipatu den bezala, hezkuntzaren bidez eta hezkuntza arma esanguratsutzat harturik, generoaren eraikuntza guztia bermatu eta sustatu delako.

Horrela, hezkuntzan 70. hamarkadatik aurrera egin diren ikerkuntzek ongi islatu duten moduan, genero kodeen transmisioa nabaria izan da. Kode horiek, gizarte edo talde kultural batek beren oinordekoei inposatutakoak izan dira, sexuaren bereizketan oinarrituak eta hezkuntza/eskola transmisio horretan bermatuak. Era berean, Robert

Stoller psikologo sozialak zioenez, hezkuntzan, umeen izaerak haiei egokitutako sexuaren arabera indartzen eta garatzen dira, rolak banatuz eta bertan estatus femeninoa eta maskulinoa sortuz.

Gauzak horrela izanik, haurren sozializazio prozesuarekin eta hezkuntza sistemaren barneraketarekin genero estereotipoen transmisioa ematen hasten da. Transmisio horretan, femeninoa eta maskulinoa den hori barneratzen hasten dira, portaera jakin batzuk bereganatuz. Portaera estereotipatu hauen barneraketa, baloreen, arauen eta pauten inposizioaren bidez ematen da, portaera estandarrak eta identitate kolektibo homogeenak sortuz (García, Rodríguez, 2010).

Hezkuntza-komunitatea arazo eta errealitate honetaz oharturik, hezkidetzaren beharraz jabetu da. Hezkidetzak, generotik at eta generoa kontuan hartu gabe egiten den hezkuntza da. Hau da, gizon eta emakumeei esleitutako rol, balio, portaera eta abar kontuan hartu gabe hezitzea da. Funtsean, hezkidetzak mutil eta neskeentzat erabilgarria izango den pertsona eredu bultzatzeari uztean eta estereotipo maskulino eta femeninoa, zaharkituak eta tradizionalak, alde batera uztean datza (Itoiz, 2013).

Era berean, proposatzen den hezkidetzak hau, berdintasunean, autokonfiantzan, kooperazioan, errespetuzko harremanetan eta identitatean, boterean eta autoritate pertsonalean oinarritzen da. Modu honetan, ikasleek genero estereotiporik gabeko heziketa jasoz (García, Rodríguez, 2010).

Halaber, emakumeek historian zehar pairatutako inbisibilitatearen kontra joatea beharrezkoa izango litzateke, hezkidetzan oinarritutako baloreetan hezkuntza prozesua martxan jartzeko, hau da, historian zehar emakumeei esleitu zaizkien balore, konpetentzia eta gaitasunak ikustaraztea eta egunerokotasunera ekartzearen alde egiten da, gizartera balore hauek ekartzeko asmoarekin. Hala ere, hau ez dugu emakumeei historian zehar esleitu izan zaizkien estereotipatutako rolek nahastu behar. Aitzitik, emakumeek izandako rolen balio-hartze bati buruz mintzo gara. Horrela, emakumeei esleitu izan zaizkien baloreak gurera ekartzeko eta gizonezkoei esleitu izan zaizkien baloreek duten indar eta balio bera emateko helburuarekin.

Heziketa honen bidez bisibile egin nahi diren ezaugarri horien artean, honako hauek biltzen dira: afektibitatea, sentsibilitatea, goxotasuna, intuizioa, zaintza, empatia, erresponzabilitatea, komunikazioa, maitasuna eta laguntasuna (García, Rodríguez, 2010).

Hezkidetzaren lanketa honetan, instituzioek hezkuntza-sisteman *Hezkidetzak eta genero indarkeriaren prebentzioa lantzeko gida plana* sortu dute. Plan honen sorrera,

detektatu ziren zenbait beharretan oinarritzen da. Behar horiek egindako zenbait ikerketei zor zaie, haietan eskola-sisteman sexismoaren eta genero-estereotipoen agerpena oso agerikoa dela ikusi da. Agerpen hori, ikastetxearen antolamenduan, irakasleen jarrera zein itxaropenetan, curriculum akademikoan, ikasten eta ikasten ez diren gaietan, ikasmaterialetan, espazioan, ikaskideen botere-harremanetan, irakasleekiko harremanetan eta irakasleen arteko harremanetan antzematen da (Eusko Jaurlaritza, 2013).

Beraz, Hezkidetzan oinarritutako eskola baten beharra argia den honetan, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak aurrera eramandako plan honen bidez, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak gainditu nahi dira, hezkuntzaren eremutik sexismoak eragindako indarketa-mota deuseztatuz eta genero estereotipoekin apurtuz. Era berean, transformazio-prozesu bat sustatu nahi da, ikastetxeetako kultura, politikak eta prebentzioa lantzeko eta eraldatzeko asmoarekin. Horrela, ikasleen arteko elkarrizketak, elkarrekintzak, elkartasuna, berdintasuna eta errespetua sustatuz. Beraz, estereotipatutako genero rola gainditzeko, jarraian instituzioek hartu dituzten erabakiak eta sortu dituzten legeak azalduko dira (*Hezkuntza-sisteman hezkidetzaren eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko Gida Plana*, Eusko Jaurlaritza, 2013).

2.3.2. Hezkuntza legeak

Eusko Legebiltzarrak otsailaren 18ko 4/2005 Legeak-Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoak- hezkuntza sistemak berdintasunaren arloan dituen betebeharrak nagusiak finkatu zituen. Horretarako, berdintasuna sustatzeko, araudi-esparru zabal bat sortu zen. Esparru horretatik, jarraian, erreferente nagusitzat hartzen diren arau, akordio eta planetako batzuk bilduko dira.

Hasteko, otsailaren 19ko 1/1993 Legeak Euskal Eskola Publikoari buruzkoak definitzen duenez, eskola izan behar da anitza, elebiduna, demokratikoa, euskal gizartearen zerbitzura dagoena, gizarte eta kultura aldetik ingurunean errotua, partaidetzazkoa, desberdintasunen berdintzailea eta aniztasunaren bateratzailea. Horrez gain, eskolaren helburuen artean, *“irakasten denaren hezkidetzazko izaera bermatzea”* dago, eskola publikoaren ideologia hezkidetzan oinarrituz eta beraz, generoen arteko berdintasuna bultzatuz.

Bestalde, otsailaren 18ko 4/2005 Legeak Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoak berdintasunerako helburu hori zabaltzen du eta horretan sakontzen du. Era berean, hezkuntza-sistemari hezkidetzaren eredu bat garatzeko premia adierazten dio, zehazki honako hau adieraziz:

Hezkuntza-politika publikoek bultzatu beharreko hezkuntza-ereduek, betiere, helburu hauek izan behar dituzte: sexuaren araberako estereotipoak eta rola baztertuko dituen garapen integrala eskaintzea, bereizkeria-mota oro baztertzea, eta generoak behartu gabeko orientazio akademiko eta profesionala bermatzea. Horretarako, emakumeen eta gizonen benetako berdintasuna bultzatuko da alor guztietan: curriculumean, antolaketan eta abarrear.

Gauzak horrela izanik, curriculumaren edukien eta hezkuntza-sistemako langileen trebakuntzan indarrean dauden legeak jarraian azalduak izanen dira. Curriculumaren edukiei dagokionez, otsailaren 1eko 4/2005 Legeak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoak ezartzen duenez, Hezkuntza Administrazioak hezkidetzako proiektuak sustatuko ditu, eta zenbait hezkidetzak helburu integratuko ditu hezkuntzako maila ezberdinetako jakintza-arloetako eta diziplinetako curriculumaren diseinuan eta garapenean:

- Emakumeei eta gizonei esleitzen zaizkien portaera eredu soziokulturaletan oinarrituta eraiki diren sexuaren araberako aurreiritzi, estereotipo eta rola ezabatzea, sexu bateko zein besteko ikasleei beren buruak erabat garatzeko aukerak eskaintze aldera.
- Emakumeen jakintza eta emakumeei gizadiaren garapenari egin dioten ekarpen sozial eta historikoa integratzea; horretarako, eta irakasten diren edukiak berrikusiko dira eta, hala dagokionean, zuzendu.
- Beharrezko ezagutzak sartzeko, neska-mutil ikasleek, etxeko lanak eta pertsonak zaintzea direla eta, gaur egun dauzkaten eta etorkizunean izan ditzaketen beharrezko erantzukizunen ardura har dezaten.
- Ikasleak trebatzea, aukera akademikoak egiten dituztenean ez ditzaten aintzat hartu generoan oinarritutako baldintzapenak.
- Emakumeen aurkako indarkeria prebenitzea; horretarako, gatazkak konpontzeko indarkeriarik gabeko metodoak erakutsiko dira, bai eta aniztasunean eta emakumeei eta gizonek eskubide eta aukeren aldetik duten berdintasunaren errespetuan oinarritzen diren bizikidetzak ereduak ere.
- Hezkuntza-sistemako langileen trebakuntzari dagokionez, langileek hezkidetzari buruzko prestakuntza izatea beharrezkoa izanen da. Hori bermatzeko, legeak hurrengo lerroetan azalduta agertuko diren xedeak bermatzen ditu.

Otsailaren 18ko 4/2005 Legeak Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoak honakoak esaten ditu:

1. *Hezkuntza Administrazioak hezkidetzari buruzko prestakuntza-planak jarriko ditu abian; plan horiek irakaskuntzako profesionalei zuzenduta egongo dira, eta unibertsitateaz kanpoko ikastetxe guztiak hartuko dituzte beren baitan.*

2. *Ikastetxe bakoitzak prestakuntza-plan horiek abian jartzerakoan neurri egokiak ezar ditzan, Hezkuntza Administrazioak beharrezko egokitzapenak egingo ditu ordutegian eta antolaketan. Gainera, mekanismoak ezarriko dira plan horietan aurreikusi diren egutegi eta ordutegiek eragindako ikasleei erantzuteko.*

3. *Irakaskuntzako profesionalei –banaka zein ikastetxeen bidez– zuzentzen zaien etengabeko prestakuntzarako eskaintzak, bere edukietan, zeharka, hezkidetzako filosofia barneratu behar du, eta, horretaz gain, hezkidetzari buruzko ikastaro zehatzak jaso behar ditu.*

Curriculumaren eta Hezkidetzaren inguruan finkatutako legeak zehaztu eta gero, hezkidetzak Lehen Hezkuntzan duen presentziaz solastatuko da. Horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoan indarrean dagoen heziberri 2020 curriculumean oinarrituko naiz, zehazki Lehen Hezkuntzako alorrean (236/2015eko dekretua).

2.3.3. Lehen Hezkuntzako egoera: Heziberri

Heziberri curriculumean murgilduz eta bertan Lehen Hezkuntzan hezkidetzarekin loturik aurkitzen diren atalak aztertuz, haren presentzia txikia dela esanzen genuke. Presentzia hori bi zatitan banatzen da; alde batetik, oinarrizko zehar-konpetentzietako batean eta beste aldetik, diziplina barruko konpetentzia sozial eta zibikoan.

Oinarrizko zehar-konpetentziari dagokionez, elkarbizitzarako konpetentzia daukagu. Konpetentzia honen bidez, pertsonen arteko, taldeko eta komunitateko egoeretan elkarrekikotasun-irizpideekin parte hartzea eta gainerako pertsonen nork bere buruari aitortzen dizkion eskubideak eta betebeharrak aitortzea lantzen dira.

Era berean, elkarbizitzarako konpetentzia honek giza eskubideen printzipio etikoetan oinarrituz, pertsona guztiek eskubide berberak dituztela azpimarratzen du, haien sexua edozein izanik. Halaber, pertsona guztien duintasun eta berdintasuna aldarrikatzen ditu, Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalak dioena gorai patuz: “gizon-emakume guztiak aske jaiotzen dira, duintasun eta eskubide berberak dituztela; eta ezaguera eta kontzientzia dutenez gero, elkarren artean senide legez jokatu behar dute”.

Diziplina barruko konpetentzia sozial eta zibikoari dagokionez, konpetentzia hau bi ataletan banatzen da: gizarte-zientziak eta balio sozial eta zibikoak. Gizarte-zientziak alorrarekin hasita, helburuen artean, generoari loturiko inolako bazterkeriarik gabe,

talde-lanean jardutean lan komunarekiko ardura garatzen joatea eta norberaren eta besteen ekarpenak adostutako helburuaren arabera balioestea goraiatzeko dira.

Balio sozial eta zibikoarekin jarraituz, generoari lotuta sortzen diren gatazka identifikatzea eta aztertzea helburua agertzen zaigu, giza eskubideetan oinarritutako elkarbizitza bidezkoa eta berdintasunezkoa eragozten duten jarrerak arbuizatzeko asmoarekin. Era berean, Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalak, Haurren eskubideen Konbentzioak eta Estatuko eta EAEko legeriak jasotako eskubideak eta betebeharrak zein diren jakitea, bere gain hartu eta babestea, haien oinarri diren balioak identifikatzea, berdintasunezko jarrera sustatzea eta bereziki emakumeei eragiten dieten diskriminazioa dakarten estereotipoak, aurreiritziak eta rola arbuizatzeko ere ezinbesteko papera betetzen dute.

Lehen Hezkuntzako ikasleekin landu beharreko edukien artean, Giza eskubideak errespetatzea eta indibiduo bakoitzari eskubide guztiak aitortzeak indar handia hartzen dute, genero berdintasuna eskubide bat delarik. Era berean, berdintasuna eragiteko eta genero-indarkeriari aurre egiteko erakundeak eta gizon eta emakumeen arteko berdintasuna esanbidez onartzea azaltzen dira.

Beraz, Heziberri curriculumean Lehen Hezkuntzari dagokionez, hezkidetzaren lanketa agerikoa da, berdintasunaren eta genero estereotiporik gabeko hezkuntzaren alde egiten baita.

2.3.4. Ondorioak

Hezkuntza-sisteman hezkidetzaren planaren inguruan garatu diren arau eta legeak azaldu eta Heziberri curriculumean hezkidetzaren duen agerpenaz solastatu eta gero, hezkuntza eta legeak atalean landutako ideiekin, gerora garatuko den ikerketarako baliagarriak izanen diren zenbait ondorio aterako dira.

Lehenik eta behin, hezkidetzaren hezkuntzan derrigorrezko presentzia dauka eta hezkidetzaren bidez, estereotipatutako genero rola apurtzea eta berdintasunean oinarritutako hezkuntza komunitatea lortu nahi dira. Beraz, helburu horiek lortzeko, hezkuntza-sistemak hezkidetzari lotutako hainbat lege ditu, guztiak genero berdintasuna bermatzeko sortu direnak.

Lege horien bidez, eskolan agertzen diren sexuaren araberako estereotipoak eta rola desagitea eta baztertzea lortu nahi da, hezkuntza genero estereotipo hauetatik kanpoko eremua izan dadin. Hortaz, bertako langile guztiek bere jardunean hezkidetzaren landu beharko dute.

Gainera, hezkidetzaren lanketa hau bermatzeko indarrean dagoen Heziberri curriculumak Lehen Hezkuntzako ikasleekin landu beharreko zenbait aspektu biltzen ditu. Aspektu horien artean, pertsona guztiek, gure sexua edozein izanik, eskubide berdinak ditugula, generoari eragiten dieten diskriminazioa dakarren estereotipoak eta rolak baztertzea eta genero berdintasuna nagusitzen dira.

Era berean, irakaskuntzako profesionalek legeak eskatzen duen bezala hezkidetzaren landu dezaten, hezkuntza administrazioak etengabe hezkidetzari buruzko prestakuntzak eskaini beharko ditu, profesionalengan hezkidetzarako filosofia sustatuz. Modu honetan, hezkuntza-sistemako langileak hezkidetzaren formatuak izanen dira eta horrek, hezkuntza komunitatean genero berdintasuneko ideologia eta praktika egotea ahalbideratuko du.

Beraz, estereotipatutako genero rolek apurtzeko eta berdintasuna sustatzeko hezkuntza-sistemanak instituzionalki dituen oinarriak plazaratuta gelditzen dira. Horrela, jarraian garatuko den ikerkuntza bere testuinguruan kokatu eta gero, hurrengo orrialdeetan haren berri emanen da.

3. METODOLOGIA

Practicum III-ak hezkuntza komunitatearekin, bereziki ikasle eta irakasleekin, harremantzeko eskaini didan aukeraz baliaturik aurrera eraman dudan ikerkuntzak, jadanik egin diren beste ikerkuntza batzuk izan ditu oinarri. Horrela, nire ikerkuntza garatu aurretik, dagoeneko testatuak izan diren eta arestian plazaratu dituzten ikerkuntzak aztertu ditut, gerora nire ikerketan lortutako emaitzak hauetan lortutako emaitzekin alderatzeko asmoz. Beraz, nire ikerketaren funtsa beste ikerketa batzuetan oinarritu dela argi utzi eta gero, erabili den metodoan sakonduko da.

3.1. Helburu nagusia eta erabilitako metodologia

Ikerketa honen helburu nagusia estereotipatutako genero rolek umeen egunerokotasuneko zenbait errealitateetan eta irakasleen egunerokotasuneko jardunean duten presentzia ezagutzea izan da. Horretarako, genero rolek hezkuntzan duten presentziaz informatu naiz eta horren inguruko datuak ezagutu eta gero, nire praktikatako ikastetxean genero rolek duten presentzia aztertu dut.

Aztertzen hasi aurretik, teoriarekin bat eginez, hipotesi orokor bat sortu dut. Hipotesi orokor hori, ikasleen eta irakasleen egunerokotasuneko jardunean estereotipatutako genero rolek presentzia izaten jarraitzen dutela da. Hala ere, hipotesi orokor honetaz

aparte, beste zenbait azpi-hipotesi ere sortu ditut, gerora baieztatu edo ezetatuko direnak. Azpi-hipotesiak aurretik aipatu izan ditudan ikerketetan lortutako emaitzak oinarritzat harturik garatu dira.

Nire helburua lortzeko eta hipotesia baieztatu edo ezeztatzeko erabili den tresna inkesta izan da. Horretarako, bi inkesta sortu dira, bat ikasleei egin zaiena eta bestea irakasleei egin zaiena (Ikus I. eranskina). Irakasleen inkestari dagokionez, galdetegia kuantitatiboa izan da. Irakasleen inkestari dagokionez, galdetegi hau bi motatakoa izan da. Inkestaren zati nagusia kuantitatiboa izan da, hala ere, irakasleen inkestetan irekiak diren bi galdera planteatzen dira, esperientzia propioak adierazteko sortu direnak. Beraz, bi galdera horien bidez galdetegiak kutsu kualitatiboa ere badu.

3.2. Taldearen ezaugarriak

Estereotipatutako genero rola oinarri dituen ikerkuntza hau, Gasteizko Adurtza ikastetxean garatu da. Adurtza ikastetxea Gasteizko kanpoaldean kokatzen den ikastetxe publiko eta euskalduna da. Bertako ikasleen kultura aipatuz, kulturartekotasun gutxiko ikastetxea dela esan beharra dago, ikasle gehienek bertako jatorria dutelako. Datu hau aipatzearen zergaitia, garatu den ikerkuntzan parte-hartu duten pertsonen errealitate kultural bera konpartitzearen garrantzia izan da. Izan ere, ikertutako ikasle eta irakasleek kulturalki oinarri bera edukita, lortutako emaitzak esanguratsuagoak izatea ahalbideratzen du, horrek aztertuak izan diren pertsonen eskema mental kulturalak oinarri bera izanen dutela adierazi nahi baitu.

Era berean, ikerkuntzan parte-hartu duten ikasleak 5.mailako bi geletako ikasleak izan dira, 10-11 urteko 47 ikasle, hain zuzen ere. Haietatik 21 neskak izan dira eta 26 mutilak. Irakasleei dagokionez, Lehen Hezkuntzako maila guztietako, hau da, 1., 2., 3., 4., 5., eta 6. mailetako zortzi tutorek parte-hartu dute, lau gizonek, hiru emakumeek eta beste genero batekoa den pertsona batek.

Irakasleen parte-hartze hau bermatzeko, gurasoen baimena izatea beharrezkoa izan da. Horretarako, lehendabizi ikastetxeko ikasketa buruarekin hitz egin dut eta inkestak egiteko inolako arazorik ez dudala esan dit. Beraz, gurasoei baimena eskatzeko oharra prestatu dut eta ohar horretan gainera, nire inkestaren galderak ere atxikitu ditut, gurasoek galderen berri izan dezaten (Ikus II. eranskina). Era berean, ikasketa buruak ohar horiek zigilatu dizkit eta gero, oharrak irakasleen artean banatu ditut. Behin baimenak eskuratu ditudala, ikasleei inkestak pasatu dizkiet eta gelan bete dituzte.

Irakasleei dagokionez, inkestak paperean prestatu beharrean, internetek galdetegiak egiteko eskaintzen duen ad-hoc aukera aprobetxatuz, galdetegiak prestatu ditut eta

korreo bidez bidali dizkiet, aurretik aipatu izan den bezala, Lehen Hezkuntzako 8 tutoreei.

3.3. Inkesten diseinua

Ikerketa honetan bi galdetegi sortu dira, bat ikasleei egin zaiena eta bestea irakasleei egin zaiena. Ikasleentzat sortu den galdetegiari dagokionez, 31 galderetakoa izan da. Aipaturiko 31 galderak hautatzekoak izan dira eta hautagaiak galderaren arabera aldakorrak izan dira; “bai” edo “ez”, “neska, mutila, beste bat/biak/kasuan kasu” edota “emakumeak, gizonak, kasuan kasu” hautagaiak zehazki.

Irakasleentzako sortu den galdetegiari dagokionez ordea, 26 galderetakoa izan da eta galdera hauek mota desberdinetakoak izan dira. Lehendabiziko galdera, bakoitzaren generoa hautatzekoak izan da, “emakumea, gizona, beste bat” hautagaiekin. Hurrengo bost galderak, Likert eskalaren bidez garatu dira, 1etik 5erako tartea ipiniz, 1 zifrak baliorik txikiena eta 5 zifrak baliorik handiena adierazi nahi dutelarik. Ondorengo 16ak, hautatzekoak izan dira eta hautagaiak honako hauek izan dira: “bai, ez” eta “neskak, mutilak, kasuan kasu”. Era berean, irekiak diren bi galdera ere egon dira estereotipatutako genero rola klasean lantzen diren eta lantzekotan nola lantzen diren jakitekoak. Bukatzeko, hautatzekoak diren azkeneko bi galdera daude “bai, ez” hautagaiak dituztenak.

3.3.1. Azpi-hipotesiak eta kategoriak

Arestian identifikatu den ikerketa hipotesi nagusitik abiatuz, azpi-hipotesi batzuk sortu dira. Azpi-hipotesi hauek sortzeko, jadanik testatuak eta aipatuak izan diren ikerketetatik lortutako informazioa erabili da. Era berean, azpi-hipotesi bakoitza kategoria batean bildu da, gerora plazaratuko diren tauletan ikusiko dugun bezala. Beraz, jarraian ikasleen eta irakasleen inkestetako azpi-hipotesiak azalduko dira.

Ikasleen inkesta

Azpi-hipotesi 1 → Ikasleek haien buruak definitzerako orduan, ez dituzte genero estereotipoak jarraituko.

Txileko Antofagastan hiriko unibertsitatean egin zen ikerkuntzak erakusten duen moduan, emakumezkoek eta gizonezkoek haien buruak deskribatzerakoan, haien berezko generoari atxikitzen ez zaizkioen balore eta ezaugarriak erabili zituzten, genero estereotipoak jarraitu gabe (Cárdenas, González, Calderón, Lay, 2009).

Azpi-hipotesi 2 → Lehen Hezkuntzako ikasleen egunerokotasunean estereotipatutako genero rola indarrean jarraitzen dute.

Ikasleen egunerokotasunean estereotipatutako genero rolek indarrean jarraitzen dutela argi utzi dute ikerketek. Hasteko, aurretik aipatu den Txileko unibertsitatean egin zen ikerkuntza berriro ere gurera ekarriz, bertan parte-hartu zuten subjektuek genero bakoitzari zenbait balore eta jarrera atxikitu zizkieten, genero estereotipoak jarraituz (Cárdenas, González, Calderón, Lay, 2009).

Gainera, eskolan ematen diren gaitasunei eta jarrerei dagokionez ere, Kataluniako Oberta unibertsitatean egin zen ikerkuntzak argi uzten duen bezala, ikasleek genero bakoitzaren inguruan espektatiba eta aurreiritzi desberdinak izaten dituzte, gaitasunak eta jarrerak estereotipatuz (Ibáñez, 2013).

Halaber, kirolean ere genero estereotipoak indarrean jarraitzen dutela frogatzen duen ikerketa ere badago. Ikerketa horretan, ikasleekin izandako zenbait elkarrizketen bidez, Gorputz Hezkuntzan genero estereotipoak indar handia dutela ikusten da, kirolak genero konkretuekin erlazionatzen baitira (García, Zamorano, 2007).

Azkenik, jolasei dagokionez, Andaluziako, Madrilgo eta Granadako unibertsitateetan aurrera eramandako ikerkuntzak, jolasetan estereotipatutako genero rola oso markatuta agertzen direla argi utzi dute, emakumezkoen jolasak zaintzarekin eta emakumeei esleitzen zaizkien ezaugarriekin lotuz eta alderantziz gizonezkoen kasuan (Martínez, Vélez, 2009). Beraz, ikasleen egunerokotasunean estereotipatutako genero rolek indarra izaten jarraitzen dutela ikusi daiteke.

Azpi-hipotesi 3 → Ikasleek irakasleen jarreraren aldetik generoari loturiko ezberdintasunak antzemanen dituzte, mutilak diren ikasleei arreta eta protagonismo handiagoa ematen dietela esanez.

Irakasleek ikasleei generoaren arabera trataera desberdina ematen dietela erakutsi du Kataluniako Oberta unibertsitatean egin zen ikerkuntza batek. Bertan, neskek eta mutilek trataera desberdina jasotzen dutela adierazi zuten, mutilei arreta eta protagonismo gehiago ematen zaiela agerian utziz (Ibáñez, 2013).

Azpi-hipotesiak plazaratu eta gero, aurretik aipatu den bezala, beheko taula honetan, azpi-hipotesi bakoitza kategorizatuta agertuko da, hipotesi bakoitza egiaztatu edo deuseztatzeko erabili diren aztergaiekin eta aldagaiekin batera.

AZPI-HIPOTESIA	KATEGORIA	AZTERGAIAK	ALDAGAIAK
Azpi-hipotesi 1	Bere generoarekiko pertzepzioa (genero identifikazioa eta bere izaeraren pertzepzioa)	a) Generoa	-Neska -Mutila -Beste bat
		b) Jarrerak eta trebetasunak	-Arduratsua -Txukuna -Asko ikasi -Kiroletan ona
Azpi-hipotesi 2	Baloreen eta jarreraren pertzepzioa genero estereotipoen ikuspuntutik	a) Jarrerak eta trebetasunak b) Eskola eta ikasketak	-Sentiberak -Txukunak -Indartsuak -Arduratsuak -Lasaiak -Bihurriak -Ahulak -Hobeak -Arduratsuak -Nota hobeak -Txintxoak -Bihurriak -Azkarrak -Gehiago hitz egin -Matematiketan + -Hizkuntzetan +

		c)Kirolak	<ul style="list-style-type: none"> -Igeriketa -Futbola -Dantza -Esku pilota -Boxeoa -Igeriketa sinkronizatua -Gimnastika erritmikoa -Rugbia
		d)Jolasak	<ul style="list-style-type: none"> -Eraikuntza jolasak -Panpinak -Kotxeak, traktoreak -Erosketa eta sukaldatzekoak -Makilatzeak -Bideo jokoak
Azpi-hipotesi 3	Irakasleen jarreraren pertzepzioa genero estereotipoen ikuspuntutik ikasleen esperientziatik	a)Trataera	<ul style="list-style-type: none"> -Berdin tratatu -Modu berdinean hitz egin -Arreta gehiago -Zorrotzagoak -Zigortu gehiago -Hitz egiteko aukera gehiago (protagonismoa)

Irakasleen inkesta

Azpi-hipotesi 1→ Irakasleek gizartean dauden genero rolak hezkuntzan duten agerpenaren berri izanen dute, baina ez dute hezkuntzan horiek erreproduzitzen direla adieraziko.

Gizartean indarrean dauden estereotiputako genero rolek hezkuntzan duten presentzia handia bada ere, irakasleen aldetik hori hala dela onartzea ez da beti erreza izaten. Askotan hezkuntza-sistemako langileek, hezkuntzan gizartean dauden estereotiputako genero rolak ematen direla eta beraz, genero rolak berproduzitzen direla ez dute islatzen (Pérez, 1999).

Azpi-hipotesi 2→ Irakasleen espektatibek lotura zuzena izanen dute ikasleen generoarekin, estereotiputako genero rolak jarraituz. Baina, ez dute ikasleak modu desberdinean tratatzen dituztela onartuko.

Berrero ere Kataluniako Oberta unibertsitatean egin zen ikerkuntza gurera ekarriz, irakasleek ikasleen inguruan dituzten espektatibak generoaren arabera desberdinak izaten direla argi utzi du, irakasleek estereotiputako genero rolak jarraitzen baitituzte. Hala ere, espektatiba desberdinak dituztela adierazten badute ere, ez dute ikasleak modu desberdinean tratatzen dituztela onartzen (Ibáñez, 2013).

Azpi-hipotesi 3→ Irakasleek ikasleekin genero esterotipoak landuko dituzte.

Legeak eskatzen eta bermatzen duen moduan, eskolan hezkidetzaren lantzea beharrezkoa da (*Hezkuntza-sisteman hezkidetzaren eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko Gida Plana*, Eusko Jaurlaritza, 2013). Gainera, legeak hori bermatzeaz gain, hezkuntza-sisteman indarrean dagoen Heziberri curriculumak Lehen Hezkuntzako ikasleekin berdintasuna eta generoari eragiten dieten diskriminazio estereotipatuak lantzea derrigorrezko bilakatzen ditu (236/2015eko dekretua).

Azpi-hipotesi 4→ Irakasleek genero estereotipoen inguruko formakuntzak jasoko dituzte legeari jarraiki eta formakuntza hauen beharra adieraziko dute.

Irakasleek hezkidetzaren inguruko eta beraz, genero estereotipoen inguruko formakuntzak jasoko dituzte, hezkuntza administrazioak legeari jarraituz hala bermatu behar duelako. Gainera, formakuntza hauek etengabekoak izan beharko dira (*Hezkuntza-sisteman hezkidetzaren eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko Gida Plana*, Eusko Jaurlaritza, 2013).

Irakasleen inkestetatik ateratako azpi-hipotesiak plazaratu eta gero, ikasleen azpi-hipotesiekin egin den bezala, beheko taulan, azpi-hipotesi bakoitza kategorizatuta

agertuko da, hipotesi bakoitza egiaztatu edo deuseztatzeko erabili diren aztergaiekin eta aldagaiekin batera.

AZPI-HIPOTESIA	KATEGORIA	AZTERGAIK	ALDAGAIK
Azpi-hipotesi 1	Genero rolen onarpenen kontzientzia	a)Gizartean	-Rol estereotipoen presentzia
		b)Hezkuntzan	-Rol estereotipoen presentzia -Genero rolen berproduzio tresna
		c)Bere jarrera	-Kontzientzia -Garrantzia
Azpi-hipotesi 2	Irakasleen espektatibak estereotipatutako genero rolen ikuspuntutik	a)Trataera	-Berdina
		b)Espektatibak	-Agerpena -Eragina
		c)Jarrerak eta trebetasunak	-Arduratsuak -Bihurriak -Txintxoak -Azkarrak -Txukunak -Nota onak -Norekin zorrotzagoak -Zigortu gehiago -Protagonismo

			gehiago(hitz egitea) - Matematika + -Gorputz hezkuntza + - Hizkuntzak +
Azpi-hipotesi 3	Genero estereotipoen lanketa	a)Ikastetxean b)Gelan	
Azpi-hipotesi 4	Irakasleek jasotzen duten formakuntza	a)Formakuntza jaso b)Jasotzeko beharra	

Garatu den ikerkuntzan erabili den metodologiaren nondik-norakoak azaldu eta gero, bertan lortutako emaitzen analisisira joko dugu, lortutako emaitzak plazaratuz eta bertatik ateratzen diren ideiez hausnartuz.

4. EMAITZAK ETA ANALISIA


Emaitzen analisia egiteko eta hauen irakurketa errazteko, emaitzak aurretik aipatu diren azpi-hipotesi zehatzen arabera banatu eta aztertuko dira. Horrela, ikasleen inkestetatik hiru dira aztertuko diren azpi-hipotesiak eta irakasleen inkestetatik lau dira aztertuko direnak.

Era berean, jarraian agertuko diren grafikoaren analisia errazteko asmoz, grafiko bakoitzaren alboan zenbait argibide emanen dira.

Ikasleen inkestak:

Azpi-hipotesi 1 → Ikasleek haien buruak definitzerako orduan, ez dituzte genero estereotipoak jarraituko.

Pertzepzio propioa



GRAFIKOETAKO HAUTAGAIAK	ESANAHIAK
N.BAI	Neskek bai
N.EZ	Neskek ez
M.BAI	Mutilek bai
M.EZ	Mutilek ez

Ikasleei haien buruaren pertzepzioaren inguruan galdetuta lortu diren datuak aztertuz eta haietan estereotiputako genero rolak agertzen diren edo ez behatuz, datuak nahiko aldakorrek izan direla, hau da, emaitzetan denetarik egon dela esan beharra dago. Nesken kasuan, gehienek arduratsuak, txukunak eta asko ikasten dutela adierazi dute eta mutilen kasuan, hiru jarrera hauetan lortu diren emaitzak orekatuagoak izan dira, baiezkoak eta ezezkoak gehiago orekatuz.

Hala ere, oreka hori guztiz apurtu da kiroletan onak diren edo ez galdetu zaienean. Galdera honetan, neska gehienek ezetz esan dute eta mutil gehienek baietz adierazi dute, estereotipoei jarraiki. Honek, ikasleek haien buruak definitzerako orduan, estereotiputako genero rolak agertu direla erakusten du, bereziki neskek haien buruak definitzerakoan.


Beraz, nire lehenengo azpi-hipotesia gurera ekarriko dut eta berau guztiz bete ez dela esan beharra dut. Ikasleek haien buruak definitzeko erabili diren zenbait aztergaietan estereotipoak egon direlako.

Azpi-hipotesi 2 → Lehen Hezkuntzako ikasleen egunerokotasunean estereotiputako genero rolek indarrean jarraitzen dute.

Jarraian, ikasleek egunerokotasuneko jarrera eta trebetasunetan, eskola eta ikasketetan, kiroletan eta jolasetan estereotiputako genero rolak jarraitzen dituzten edo ez adieraziko duten datuak azalduko dira.

Jarrerak eta trebetasunak

Jarrerak eta trebetasunak



GRAFIKOETAKO HAUTAGAIAK	ESANAHIAK
N.EM	Neskek emakumeak
N.GI	Neskek gizonak
N.K.K	Neskek kasuan kasu
M.EM	Mutilek emakumeak
M.GIZ	Mutilek gizonak
M.K.K	Mutilek kasuan kasu

Estereotiputako jarrera eta trebetasunak aztertuz, ez da horietako batean ere neutraltasun osorik ikusten, aitzitik, aztergai diren jarrera eta trebetasun guztiak maila handiagoan edo txikiagoan estereotipatuta agertu dira, eta kasu batzuetan, modu oso nabarmenean. Izan ere, item guztiak proportzio desberdinetan bete badira ere, badira zenbait hautagai ez direnak aukeratuak izan. Horren erakusletzat, honako datu aipagarri hauek ditugu:

- Ez da neskarik egon mutilak sentiberagoak direla esan duenik.
- Ez da neskarik egon mutilak txukunagoak direla esan duenik.
- Ez da neskik ez mutilik egon neskak indartsuagoak direla esan duenik.
- Ez da neskik ez mutilik egon mutilak arduratsuagoak direla esan duenik.
- Ez da neskik ez mutilik egon mutilak lasaiagoak direla esan duenik.
- Ez da neskik ez mutilik egon neskak bihurriagoak direla esan duenik.
- Ez da neskik ez mutilik egon mutilak ahulagoak direla esan duenik.

Ikusten dugun bezala, emaitza hauek genero estereotipoen islada argia dira, eta beraz, datu hauetan arreta berezia paratzea beharrezkoa da. Nahiz eta azaleko begirada batekin aipatu dituzten jarrera eta trebetasun hauek zenbait hautagaietan neutraltasuna adierazi, eta honek berez genero estereotiporik gabeko egoera islatu, ez da kasualitatea neutraltasun hori beti estereotiputako jarreretan agertzea. Hau da, ez da kasualitatea berez emakumezkoei atxikitzen zaien jarrera konkretu batean gizonaen presentziarik ez egotea, eta alderantziz.


Era berean, neskek jarrera eta trebetasunen inguruan daukaten pertzepzioa mutilek dutenarekin alderatuz gero, neutralagoa izan da, hau da, genero estereotipoak ez dira horren agerikoak izan. Horren erakusletzat honako datu hauek ditugu:

- Sentiberagoak nortzuk diren galdetu zaienean, nesken % 38,30ak kasuan kasu adierazi du eta mutilen % 34,04ak.
- Txukunagoak nortzuk diren galdetu zaienean, nesken % 40,43ak kasuan kasu adierazi du eta mutilen % 38,30ak.
- Indartsuagoak nortzuk diren galdetu zaienean, nesken % 36,17ak kasuan kasu adierazi du eta mutilen % 34,04ak.

Gauzak horrela izanik, jarrera eta trebetasunetan estereotipatutako genero rolak agertzen direla argi gelditu da.

Eskola eta ikasketak

Eskola eta ikasketak



GRAFIKOETAKO HAUTAGAIAK	ESANAHIAK
N.N	Neskek neskek
N.M	Neskek mutilak
N.K.K	Neskek kasuan kasu
M.N	Mutilek neskek
M.M	Mutilek mutilak
M.K.K	Mutilek kasuan kasu

Eskolako jarrera eta trebetasunei dagokionez, aurreko grafikoan baino neutraltasun orokorragoa eta handiagoa ikusten bada ere, zenbait jarrera eta trebetasun oso estereotipatuta agertzen zaizkigu, aurreko grafikoan aipatu izan dudana bezala hautatuak izan ez diren hautagaiak zehazki hautagai konkretu batzuk izatea ez baita kasualitate hutsa. Horren erakusletzat, jarraian aipatuko ditudan datuak ditugu:


- Ez da neskek ez mutilik egon eskolan hobeak mutilak direla esan duenik.

- Ez da neskik ez mutilik egon eskolan arduratsuagoak mutilak direla esan duenik.
- Ez da neskik ez mutilik egon nota hobeak mutilak ateratzen dituztela esan duenik.
- Ez da neskik ez mutilik egon txintxoagoak mutilak direla esan duenik.
- Ez da neskik ez mutilik egon neskak bihurriagoak direla esan duenik.

Beraz, grafiko honetan ere begi bistaz ikusten ez den horren atzean dagoena argira ekarri nahi izan dut, azaleko neutraltasun horren atzean genero estereotipoak daudela erakutsiz, berriro ere berez emakumezkoen atxikitzen zaien jarrea edo ezaugarri konkretu batean gizonetzkoen presentziarik ez egotea eta alderantziz, kasualitatea ez dela argi utziz.

Azkenik aipatzeke dago, matematikako eta hizkuntzetako trebetasunaren inguruan galdetu zaienean, ia erabateko neutraltasuna egon dela, haietan estereotipoak erakusten ez dituztela islatu baita.

Kirolak



GRAFIKOETAKO HAUTAGAIK	ESANAHIAK
N.E	Neskek emakumeak
N.G	Neskek gizonak
N.K.K	Neskek kasuan kasu
M.E	Mutilek emakumeak
M.M	Mutilek mutilak
M.K.K	Mutilek kasuan kasu

Kirolen inguruan galdetuta lortu diren datuak aztertuz, neutraltasun osorik erakutsi duen kirolik ez da egon, aitzitik, maila handiagoan edo txikiagoan estereotipoak agertu dira. Hala ere, aipatzekoa da igeriketak lortu duen neutraltasun handia. Bestalde, estereotipo nabarmenenak honako kirol hauetan ikusi ahal izan dira:

Esku pilota: mutilen nagusitasuna nabarmen.

Boxeoa: mutilen nagustiasuna nabarmen.


Igerikea sinkronizatua: nesken nagusitasuna nabarmen.

Gimnasia erritmikoa: nesken nagusitasuna nabarmen.

Rugbia: mutilen nagusitasuna nabarmen.

Jolasak

Jostailuak



GRAFIKOETAKO HAUTAGAIK	ESANAHIAK
N.N	Neskek neskek
N.M	Neskek mutilak
N.B	Neskek biak
M.N	Mutilek neskek
M.M	Mutilek mutilek
M.B	Mutilek biak

Jostailuen inguruan galdetuta lortu diren datuak aztertuz, erabateko neutraltasuna erakutsi duten jolasik ez da egon, kasu honetan ere guztiek maila handiagoan edo txikiagoan estereotipatutako genero rola jarraitu dituztelako. Jarraian, estereotipo nabarmenenak zer jostailuetan eman diren aipatuko da:

Panpinak: mutilen erdiak nesken jostailua dela adierazi dute.

Kotxeak, traktoreak: mutilen proportzio handi batek mutilen jostailuak direla adierazi dute.

Erosketa eta sukaldatzeko jostailuak: mutilen proportzio handi batek nesken jostailuak direla adierazi dute.



Makilatzeak: nesken proportzio handi batek eta mutilen proportzio ia osoak nesken jostailuak direla adierazi dute.

Bideo jokoak: nesken proportzio handi batek eta mutilen proportzio ia osoak mutilen jostailuak direla adierazi dute.

Beraz, jostailu guztiek estereotipoak erakutsi dituztela argi ikusten da. Gainera, esan beharra dago, jostailuen kasuan mutilek estereotipo gehiago erakutsi dituztela neskek baino, estereotipatutako aurre-iritzi negatiboagoak dituztela agerian utzirik.

Emitza hauek guztiak analizatuta, bigarren azpi-hipotesia gurera ekarriko dut eta berau baieztatuta gelditzen dela esanen dut, izan ere, grafikoetan islatuta agertzen den moduan, Lehen Hezkuntzako ikasleen egunerokotasuneko jarrera eta trebetasunetan, eskola eta ikasketetan, kiroleetan eta jolasetan estereotipatutako genero rola presentzia izaten jarraitzen dute.

Azpi-hipotesi 3→ Ikasleek irakasleen jarreraren aldetik generoari loturiko ezberdintasunak antzemanen dituzte, mutilak diren ikasleei arreta eta protagonismo handiagoa ematen dietela esanez.



GRAFIKOETAKO HAUTAGAIAK	ESANAHIAK
N.Bai	Neskek bai
N.Ez	Neskek ez
M.Bai	Mutilek bai
M.Ez	Mutilek ez
N.N	Neskek neskak
N.M	Neskek mutilak
N.B	Neskek biak
M.N	Mutilek neskak
M.M	Mutilek mutilak
M.B	Mutilek biak

Ikasleek irakasleengandik jasotzen duten trataerari loturiko galderen emaitzak aztertzen hasiz, trataera hori berdina den galdetzen zaienean, ezkerreko grafikoan ikusten den bezala, orokorrean baietz adierazi dute. Hala ere, mutilen proportzio esanguratsu batek ezezkoa eman du. Gainera, mutilen ezezko hori eskuineko grafikoan agertzen diren aztergaietan ere agerian egon da, ikasleek generoaren arabera trataera desberdina jasotzen dutela erakutsiz.



Desberdintasun horietan arreta ipiniz, mutilen proportzio adierazgarri batek haiek arreta gehiago izaten dutela adierazi dute. Era berean, zigorrez galdetu zaienean, bai neskek eta baita mutilek ere, azken hauek zigor gehiago izaten dituztela adierazi dute. Horrek, ikasleek irakasleengandik jasotzen duten trataera, genero estereotipoetan oinarritzen dela erakusten du.

Beraz, hirugarren azpi-hipotesia gurera ekarriko dut eta berau baieztatuta gelditzen dela esanen dut, izan ere, ikasleek irakasleek generoaren arabera tratu desberdina ematen dietela adierazi dute, mutilak diren ikasleei arreta handiagoa ematen dietela esanez.

Irakasleen inkestak:


Azpi-hipotesi 1 → Irakasleek gizartean dauden genero rolak hezkuntzan duten agerpenaren berri izanen dute, baina ez dute hezkuntzan horiek erreproduzitzen direla adieraziko.

Jarraian, Lehen Hezkuntzako zortzi tutoreek gizartean dauden esterotiputako genero rolen inguruan duten eta hezkuntzara bideratuta dauden iritzi zein ikuspenak biltzen dituen datuak azalduko dira.




Hezkuntza-sistema rol estereotipatu hauek birproduzitzen jarraitzeko tresna esanguratsua/garrantzitsua dela uste duzu?

8 respuestas




Gai honi zenbateko garrantzia aitortzen diozu?

8 respuestas



Onartutako genero rol horien gaineko kontzientzia duzula uste duzu?

8 respuestas



Grafiko hauetan azaleratzen den moduan, Lehen Hezkuntzako zortzi tutoreen artean ez da erabateko adostasunik ikusi. Hasteko, gizartean genero rolen inguruko presentziaz galdetzen zaienean, ia erdiak presentzia hori oso nabarmena dela adierazten du. Hala ere, hezkuntzan presentzia horretaz galdetzen zaienean, datuek beste norabide bat hartzen dute, ia erdiak hezkuntzan genero rolen presentzia oso nabaria ez dela esanez.


Datuak aztertzen jarraituz, irakasleen erdiek hezkuntza-sistema genero rol hauek berproduzitzeko tresna esanguratsua dela adierazten dute eta baita gai honi garrantzia handia ematen diotela ere. Era berean, estereotipatutako genero rolen inguruko kontzientzia handia dutela ikusi ahal izan da.

Beraz, lehenengo azpi-hipotesia gurera ekarriko dut eta berau guztiz betetzen ez dela esan beharra dago, izan ere, irakasleen ia erdiek gizartean dauden genero rolak hezkuntzan duten agerpena ez dute argi ikusten. Hala ere, nagusitasun batean hezkuntza genero estereotipoak berproduzitzeko tresna garrantzitsua dela adierazi dute.

Azpi-hipotesi 2→ Irakasleen espektatibek lotura zuzena izanen dute ikasleen generoarekin, estereotipatutako genero rolak jarraituz. Baina, ez dute ikasleak modu desberdinean tratatzen dituztela onartuko.

Jarraian, irakasleek ikasleak generoaren arabera desberdin tratatzen dituzten eta haien inguruan dituzten espektatibak estereotipatuan dauden edo ez adieraziko duten datuak azalduko dira.





Datuen analisiarekin hasiz, irakasle gehienek ez dute ikasleak generoaren arabera modu desberdinean tratatzen dituztela onartu. Gainera, bi generoen inguruan dituzten espektatibak berdinak izaten direla adierazi dute, espektatibek ikasleengan eragin zuzena dutela esanez. Hala ere, espektatiba zehatzen inguruan galdetu zaienean, galdetutako jarrera eta trebetasun guztietan, maila handiagoan edo txikiagoan, estereotipoak agertu dira. Hortaz, jarraian, estereotipo horiek zer norabideetan garatu diren aipatuko da:

Nesken norabidea hartu dutenak → arduratsuagoak, txintxoagoak, txukunagoak eta hizkuntzetan hobeak.

Mutilen norabidea hartu dutenak → Bihurriak, azkarrak, gehiago zigortzen dira, protagonismo handiagoa, matematiketan hobeak eta gorputz hezkuntzan hobeak.


Beraz, bigarren azpi-hipotesia gure artera ekarriz eta emaitzekin alderatuz, nire hipotesia egiaztatua gelditzen da, irakasleen estereotiputako genero rolen espektatibek ikasleen generoarekin lotura dutela agerian gelditu baita. Gainera, nire azpi-hipotesian bezala, irakasleek orokorrean ez dute ikasleak modu desberdinean tratatzen dituztela onartu, nahiz eta gero, ikasleen generoaren arabera dituzten espektatiba horiek oso desberdinak izan. Honek irakasleen autopertzepzioaren eta errealitatearen artean kontraesan bat dagoela erakusten du.

Azpi-hipotesi 3→ Irakasleek ikasleekin genero esterotipoak landuko dituzte.

Lortutako emaitzak aztertuz, irakasle gehienek, seirek hain zuzen ere, genero rola klasean lantzen dituztela adierazi dute, ikasleei pertsonak ezberdintasun horretan berdina gaita erakutsiz eta rol desberdinak genero guztiei aplikatuz. Era berean, estereotipatuak genero rola hauek klasean nola lantzen dituzten galdetzean, jarduerak, dinamikak eta jolasek hartu dute indar eta presentzia handiena.

Beraz, nire azpi-hipotesia egiaztatua gelditzen dela esan daiteke, irakasleek ikasleekin genero estereotipoak lantzen dituztelako, modu esplizitu edo inplizituan.

Azpi-hipotesi 4→ Irakasleek genero estereotipoen inguruko formakuntzak jasoko dituzte legerari jarraiki eta formakuntza hauen beharra adieraziko dute.



Irakasleei gai honen inguruko formakuntzaren berri galdetu zaienean, haietako gehienek honen inguruko formakuntzak jaso dituztela adierazi dute eta era berean, formakuntzen beharra ere nagusitasun osoarekin adierazi dute.

Beraz, laugarren azpi-hipotesia egiaztatua gelditzen da, irakasle gehienek genero estereotipoen inguruko formakuntzak jaso dituztelako eta hauen beharra adierazi dutelako.

5. ONDORIOAK

Inkesten bidez lortutako emaitzak aztertu eta azpi-hipotesiak baieztatu edo ezeztatu diren adierazi eta gero, nire ikerkuntzaren bidez lortutako emaitzak teoriarekin jarriko ditut harremanetan, zenbait ondorio ateraz.

Hasteko, nire ikerkuntzan parte-hartu duten ikasleek duten generoarekiko pertzepzioa aztertzerakoan lortu diren emaitzak Txileko Antofagastan hiriko unibertsitatean burutu zen ikerkuntzarekin bat egin dute (Cárdenas, González, Calderón, Lay, 2009). Nire ikerkuntzan, Txilen bezala, ikasleek generoarekiko duten pertzepzioa estereotipututako genero roletan oinarritzen da. Bertan, gizonezkoei eta emakumezkoei estereotipututako jarrera eta trebetasun konkretu batzuk esleitu zaizkie, genero bakoitzaren aurre-iritzi markatu batzuk erakutsiz. Horren adibidetzat, emakumeei txukunagoak, lasaiagoak eta ahulagoak direla esatea edota gizonezkoei bihurriagoak eta indartsuagoak direla esatea ditugu.

Hala ere, nire ikerketa ez dator Txilekoarekin bat ikasleek haien buruak definitzerako orduan orokorrean estereotipututako genero rol hauek aurkezten ez dituztela defendatzen duenean. Izan ere, nire ikerkuntzan maila esanguratsu batean ikasleek haien buruak definitzerako orduan estereotipututako genero rola adierazi dituzte. Adibidez, neska gehienek arduratsuak, txukunak eta asko ikasten dutela adierazi dute. Gainera, kiroletan onak diren edo ez galdetu zaienean, estereotipoek presentzia handia izan dute, mutil gehienek baietz eta neska gehienek ezetz adieraziz. Beraz, kasu honetan aurretik aurkeztutako teoriak ez du nire ikerkuntzarekin bat egin.

Jarrera estereotipatuen islada irakaslegoan ere aurkitu dezakegu. Ikasleek irakasleengandik generoaren arabera tratatu desberdina izaten dute, mutilei arreta eta protagonismo handiagoa ematen baitzaie. Honen erakusletzat Kataluniako Oberta unibertsitatean egin zen ikerkuntza daukagu eta esan beharra dago, bertako ikasleek generoaren araberako tratatu desberdina pairatzen dutela adierazi zutela (Ibáñez, 2013). Adierazpen hau nire ikerkuntzan ere ikusi ahal izan da, bertan lortu diren emaitzetan irakasleek ematen duten trataeran generoaren araberako desberdintasun batzuk antzeman direlako, bereziki arreta gehiago mutilei ematen dietela adierazterakoan.

Halaber, zigorrez galdetu zaienean, bai neskek eta baita mutilek ere, azken hauek zigor gehiago izaten dituztela adierazi dute. Horrek, ikasleek irakasleengandik jasotzen duten trataera genero estereotipoetan oinarritzen dela erakusten du. Trataera estereotipatu honen arrazoia, hein handi batean, irakasleek ikasleen generoaren arabera dituzten espektatibei zor zaie. Horrela, irakasleek generoarekiko dituzten

espektatibek eragin zuzena izaten dute ikasleen eskolako generoarekiko pertzepzioan eta baita errendimenduan ere (Vargas, 2015). Eragin hori, ikasleek eskolan azaltzen diren jarrera eta trebetasunak estereotipatutako genero rolen arabera sailkatzerakoan ikusi ahal izan da, ikasle anitzek jarrera eta trebetasun batzuk estereotipatutako genero rolen arabera sailkatu dituztelako, gero hobeto azalduko den bezala irakasleen espektatibekin bat egin dutenak.

Gainera, genero estereotipoek kiroletan duten agerpenean begirada ipiniz, mutilak indarra, erresistentzia, aktibitatea eta agresibitatea oinarritzat duten kirolekin eta neskek, adierazpena, erritmoa, flexibilitatea eta koordinazioa behar duten kirolekin lotzen jarraitzen dira (Ángel, García, Zamorano, 2007). Errealitate hau nire ikerkuntzan ere antzeman da, bertan ateratako datuen bidez mutilak agresibitatea eta lehiakortasuna eta nesken kasuan kooperazioa, lasaitasuna eta elastikotasuna behar duten kirolekin lotu direlako, genero estereotipoei jarraiki.

Jolasekin jarraituz, hauetan ere estereotipoak oso nabarmenak izaten dira. Emakumezkoen jolasak zaintzarekin eta orokorrean emakumeei esleitzen zaizkien trebetasunekin eta gizonezkoen jolasak gizonei esleitzen zaizkien trebetasunekin loturik agertzen dira. Gainera, neutraltasun osoko jostailuak ere ez dira agerikoak izaten (Martínez, Vélez, 2009). Nire ikerkuntzan ere hori oso nabarmena izan da, jolasak estereotipatuta agertu dira eta ez da erabateko neutraltasunik ikusi jostailu bakar batean ere.

Ondorioekin jarraituz, teorian azaldua izan den bezala, hezkuntza-sistema gizarteko balore zein egiturak erreproduzitzeko tresna esanguratsua da, gizartean indarrean dauden estereotipatutako genero rola hezkuntzaren edo eskolaren bidez bermatu ohi direlako (Guerra, 2002). Hezkuntza-sistemako langileen, hau da, irakasleen artean aipatutakoa onartzen bada ere, modu zuzen batean haien jardunean estereotipatutako genero rola agertzen direla onartzea ez zaie errega egiten. Hori ere agerikoa izan da nik aurrera eramandako ikerketan, izan ere, hezkuntza gizarteko genero estereotipoak erreproduzitzeko tresna esanguratsua dela onartu badute ere, ez dute nagusitasun batean hezkuntzan estereotipatutako genero rola agertzen direla adierazi. Hala ere, gerora ikasleen inguruan dituzten espektatibak generoaren arabera ematen diren edo ez galdetzerakoan, irakasleek estereotipoak jarraitzen dituztela argi utzi dute, haien autopertzepzioa eta errealitatea kontrajarriz.

Horrela, irakasleek dituzten generoarekiko espektatibak hezkuntzan antzematen direla ikusi ahal izan da, neska edo mutil diren ikasleengan ez baitira jarrera eta trebetasun berdinak espero. Honek, aurretik teorian aipatutakoarekin guztiz bat egin du (Ibáñez,

2013). Halaber, sortzen dituzten espektatiba horiek lotura eta eragin zuzena izaten dute ikasleen errendimenduan, zenbaitetan espektatibak erreal bihurtzeraino. Kataluniako Oberta unibertsitatean egin zen ikerketan irakasleek ikasleei generoaren arabera jarrera eta trebetasun desberdinak esleitu zizkieten eta atxikitutako jarrera eta trebetasun horiek ikasleen pertzepzioetan ere agertu ziren. Gauza bera gertatu da nire ikerkuntzan, irakasleek ikasleei generoaren arabera jarrera eta trebetasun desberdinak esleitu dizkiete, esleitutako jarrera eta trebetasun horiek ikasleen eskolako pertzepzioan ere agertu direnak. Adibidez, mutilak bihurriagoak eta neskek txintxoagoak eta arduratsuagoak direla adieraztea.

Ikusi ahal izan den bezala eskolan estereotipatutako genero rolek duten presentzia handia da. Beraz, hezkuntza-sistemako legeek bermatzen dutena jarraituz, hezkidetzaren beharra ezinbestekoa da. Hezkidetzaren plan horren helburuetan, sexuaren araberako estereotipoak eta rola baztertzea eta emakumeen eta gizonen benetako berdintasuna bultzatzea bilatzen dira, hezkuntza osatzen duten alor guztietan, curriculum barne. Hau kontuan izanik, ikasleen hezkuntzako egunerokotasuneko hartu-emanen eta haiekin lantzen diren edukietan hezkidetzaren presentzia beharrezkoa da. Honek esan nahi du, ikasleekin genero rola landu behar direla, hezkidetzako proiektuak sustatuz eta hezkuntzako maila ezberdinetako jakintza-arloetako eta diziplinetako curriculumean hezkidetzari lotutako helburuak integratuz. Beraz, nire ikerkuntzan irakasleek ikasleekin estereotipatutako genero rola lantzen dituztela erakutsi dute, legeari jarraiki.

Azkenik, irakasleen formakuntzari dagokionez, legeak bermatuta, hezkuntza-sistemako langileek hezkidetzaren inguruko trebakuntza izatea beharrezkoa da eta jasotako emaitzetan formakuntza horien presentzia nabarmena izan da. Gainera, formakuntzen beharra ere nagusitu da, irakasle guztiek hezkidetzaren inguruko formakuntzen beharra adierazi baitute.

6. HOBETZEKO PROPOSAMENAK

Lanari bukaera eman eta berau egiteko egin dudana ibilbidea erreparatzen hasita, lan honetan gauza asko ikasi ditudala esan beharra dut. Egiten nuen nire lehendabiziko ikerkuntza lana izan da eta lehenengo aldi guztiek ikasteko eta hanka sartzeko eskaintzen duten aukeraz baliaturik, asko ikasteko aukera izan dut. Beraz, lan honetan denetarik egon da, ongi egindako gauzekin disfrutatu dut eta hobetzeko egon diren gauzekin nire burua ezagutza berriez aberastu dut.

Hobetzeko proposamenen artean, ikasleei egin nien galdetegian, alor gehiegi aztertzea aipatuko nuke. Galdetegi horretako galderen bidez estereotipatutako genero rolen agerpena diziplina konkretu batean zentratu ordez, diziplina desberdinak aztertu nahi izan nituen eta horrek nire lana pixka bat zaildu egin duela uste dut, bilatu beharreko informazioa eta erabili behar izan dudan denbora handiagoa izan delako. Agian hurrengorako horrelako lan bat egiterako orduan, aztertergaien dimentsioa txikiagoa izatea hobe izango litzateke.

Hala ere, lana kurtso hasieran bideratzen hasteak anitz lagundu dit, behar izan dudan denbora hori guztia izateko aukera eman didalako. Gainera, ikerketaren bidez atera ditudan emaitzak eta ondorioak interesgarriak iruditu zaizkit. Beraz, egin dudan lan haundiak fruituak eman dituela uste dut, lana esanguratsua izan da eta pozik nago.

Bukatzeko, ezin dut nire gradu amaierako lana niretzako hezkuntza-sisteman estereotipatutako genero rolak lantzeak duen beharrezkotasuna aipatu gabe utzi. Etorkizuneko irakasle izanen naizen aldetik, uste dut irakasleok gai honen inguruko gauza aunitz ditugula ikasteko eta gure ikasleekin lantzeko, beti ere hezkuntza eta gizarte osasuntsuago baten aldeko apostua egiteko. Hortaz, nire ikasle papera gai hau lantzen bukatzea aberasgarria izan da, nire bizitzan oso garrantzitsua den gaien sakontzeaz aparte, aipaturiko etorkizuneko irakasle horrek ere bere jardunerako tresna eta ezagutza desberdinak bereganatu dituelako.

7. BIBLIOGRAFIA

- 235/2015 DEKRETUA, abenduaren 22koa. Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena.
- Ángel, J. B., García, E. F., & Zamorano, M. Á. S. (2007). Estereotipos de género, actividad física y escuela: La perspectiva del alumnado. *Profesorado. Revista de Currículum y Formación de Profesorado*, 11(2).
- Blanco, N. (2001). *Educación en femenino y en masculino* (Vol. 2). Ediciones Akal.
- Cárdenas, M., González, C., Calderón, C., & Lay, S. L. (2009). Medidas explícitas e implícitas de las actitudes hacia las mujeres. *Interamerican Journal of Psychology*, 43(3), 541-546.
- Collin, F. (2008). Se nace mujer y se deviene: Las ambigüedades de Simone de Beauvoir. In *Jornada de Homenaje a Simone de Beauvoir 12 de septiembre de 2008 La Plata, Argentina. A 100 años de su nacimiento*. Universidad Nacional de La Plata. Facultad de Humanidades y Ciencias de la Educación. Departamento de Lenguas Modernas y Centro Interdisciplinario de Investigaciones en Género.
- Díez, A. (2019). Teoría de los roles, ¿cuál es nuestro papel en la sociedad?. *La mente es maravillosa*. Honako webgune honetatik berreskuratuta: <https://lamenteesmaravillosa.com/teoria-de-los-roles-cual-es-nuestro-papel-en-la-sociedad/>
- Eusko Jaurlaritzak. Hezkuntza, Hizkuntza politika eta kultura saila (2013). *Hezkuntza-sisteman hezkidetzak eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko Gida Plana*, berreskuratuta: https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/inn_doc_co_nvivencia/eu_def/adjuntos/coeducacion/920006e_Pub_EJ_hezkidetza_plana_e.pdf
- García, B. S., & Rodríguez, M. V. H. (2010). Competencias y valores en educación infantil. Una propuesta coeducativa. En E. Moreno (Ed.), *Orientaciones para una educación no sexista* (pp. 243-270). Oviedo, España: Septem ediciones.
- Gilberto Leonardo, O. (2004). La definición del concepto de percepción en psicología con base en la teoría Gestalt. *Revista de estudios sociales*, (18), 89-96.
- Guerra, M. Á. S. (2002). Currículum oculto y construcción del género en la escuela. *Universidad de Málaga*. Honako webgune honetatik berreskuratuta:

http://catedraunescodh.unam.mx/catedra/CONACYT/07_CursoBasicoResConflicto2011/Contenidos/BIBLIOGRAFIACOMPLEMENTARIA/2_curriculumocultoyconstrucciondelgeneroenlaescuela%20Santos%20Guerra.

- Ibáñez, M. S. (2013). El uso de las TIC en el ámbito educativo con perspectiva de género. Actitudes del profesorado y del alumnado. *Telos: Cuadernos de comunicación e innovación*, (95), 116-124.
- Itoiz Lleida, U. (2013). *Hezkidetza eta sexismoa hezkuntzan* (Gradu Amaierako Lana). Nafarroako unibertsitate publikoa, Iruña, Nafarroa.
- Maranon, I, (2018), *Educación en feminismo*, Barcelona, España, Plataforma.
- Menéndez, M. D. C. R., & Calvo, J. V. P. (2005). La investigación sobre el género en la escuela: nuevas perspectivas teóricas. *Teoría de la Educación. Revista interuniversitaria*, 17.
- Moya, M., Páez, D., Glick, P., Fernández, I., & Poeschl, G. (2002). *Masculinidad-feminidad y factores culturales* (Doktoretza tesia). Facultad de Psicología, Universidad de Granada.
- Ochoa Luna, N. J. (2017). Estudio sobre la percepción de género en niños y niñas de Nivel Primario.
- Pérez, A. R. (1999). Género, rendimiento y expectativas docentes. *Aula*, 11.
- Puerta Sánchez, S., & González Barea, E. M. (2015). Reproducción de los estereotipos de género en Educación Infantil a través de los juegos y juguetes. *Revista de Investigación en la Escuela*, 85, 63-74.
- Reina, M. D. C. M., & Cea, M. V. (2009). Actitud en niños y adultos sobre los estereotipos de género en juguetes infantiles. *CIENCIA ergo-sum, Revista Científica Multidisciplinaria de Prospectiva*, 16(2), 137-144.
- Sánchez Hernandez, M. y López Fernandez, M. (2005). *Pigmalión en la*. Editorial Universidad Autónoma de la Ciudad de México. México D.F
- Varela, N. (2014). *Feminismo para principiantes*. B de books.
- Vargas, J. G. (2015). El efecto Pigmalión y su efecto transformador a través de las expectativas. *Perspectivas docentes*, (57).

8. ERANSKINAK

I. Eranskina: Galdetegiak

a) Ikasleen galdetegia

Zer generokoa zara (neska/mutila)

- Neska
- Mutila
- Beste bat

Nor dituzu berdintzat?

- Neskak
- Mutilak
- Biak

Arduratsua zarela uste ahal duzu?

- Bai
- Ez

Txukuna zara?

- Bai
- Ez

Asko ikasten duzu?

- Bai
- Ez

Kiroletan ona zarela uste duzu?

- Bai
- Ez

Nortzuk dira sentiberagoak?

- Emakumeak
- Gizonak
- Kasuan kasu

Nor dira txukunagoak?

- Emakumeak
- Gizonak
- Kasuan kasu

Nor dira indartsuagoak?

- Emakumeak
- Gizonak
- Kasuan kasu

Nor dira arduratsuagoak?

- Emakumeak
- Gizonak
- Kasuan kasu

Nor dira lasaiagoak?

- Emakumeak
- Gizonak
- Kasuan kasu

Nor dira bihurriagoak?

- Emakumeak
- Gizonak
- Kasuan kasu

Nor dira ahulagoak?

- Emakumeak
- Gizonak
- Kasuan kasu

Nortzuk dira hobeak ikasketetan?

- Neskak
- Mutilak
- Kasuan kasu

Nortzuk dira arduratsuagoak ikasketetan?

- Neskak
- Mutilak
- Kasuan kasu

Nortzuk ateratzen dituzte nota hobeak?

- Neskak
- Mutilak
- Kasuan kasu

Nortzuk dira txintxoagoak eskolan?

- Neskak
- Mutilak
- Kasuan kasu

Nortzuk dira bihurriagoak eskolan?

- Neskak
- Mutilak
- Kasuan kasu

Nortzuk dira azkarragoak?

- Neskak
- Mutilak
- Kasuan kasu

Norek hitz egiten du gehiago klasean?

- Neskek
- Mutilek
- Kasuan kasu

Nortzuk dira hobeak matematiketan?

- Neskak
- Mutilak
- Kasuan kasu

Nortzuk dira hobeak hizkuntzetan?

- Neskak
- Mutilak
- Kasuan kasu

Irakasleek berdin tratatzen dituzte neska eta mutilak?

- Bai
- Ez

Irakasleek modu berdinean hitz egiten diote neskei eta mutilei?

- Bai
- Ez

Nori eskaintzen diote arreta gehiago?

- Neskei
- Mutilei
- Biei berdin

Norekin dira zorrotzagoak?

- Neskekin
- Mutilekin
- Biekin berdin

Nor zigortzen dute gehiago?

- Neska
- Mutila
- Biak berdin

Nori ematen diote hitz egiteko aukera gehiago?

- Neskari
- Mutilari
- Biei

Nortzuk dira hobeak kirol hauetan?

- Igeriketan
 - Emakumeak
 - Gizonak
 - Kasuan kasu
- Futbolean
 - Emakumeak
 - Gizonak
 - Kasuan kasu
- Dantzetan
 - Emakumea
 - Gizona
 - Kasuan kasu

- Esku pilotan
 - Emakumea
 - Gizona
 - Kasuan kasu

- Boxeoan
 - Emakumea
 - Gizona
 - Kasuan kasu

- Igeriketa sinkronizatuan
 - Emakumea
 - Gizona
 - Kasuan kasu

- Gimnastika erritmikoan
 - Emakumea
 - Gizona
 - Kasuan kasu

- Rugbian
 - Emakumea
 - Gizona
 - Kasuan kasu

Nork izaten ditu horrelako opari edo jostailuak?

- Eraikuntzako jolasak
 - Neskek
 - Mutilek
 - Biek

- Panpinak
 - Neskek
 - Mutilek
 - Biek

- Kotxeak, traktoreak...
 - Neskek
 - Mutilek
 - Biek

- Erosketak egiteko eta sukaldatzeko jostailuak
 - Neskek
 - Mutilek
 - Biek

- Makilatzeako jostailuak
 - Neskek
 - Mutilek
 - Biek

- Bideo jokoak
- Neskek
- Mutilek
- Biek

b) Irakasleen galdetegia

Generoa *

- Emakumea
 Gizona
 Beste bat

Hezkuntzan genero rol estereotipatuaren presentzia nabaria dela esanen zenuke? *

- Oso gutxi 1 2 3 4 5 Handia
-

Gizartean genero rol estereotipatuaren presentzia nabaria dela esanen zenuke? *

- Oso gutxi 1 2 3 4 5 Handia
-

Hezkuntza-sistema rol estereotipatu hauek birproduzitzen jarraitzeko tresna esanguratsua/garrantzitsua dela uste duzu? *

- Erabat desados 1 2 3 4 5 Erabat ados
-

Onartutako genero rol horien gaineko kontzientzia duzula uste duzu? *

- Ez, ezer ez 1 2 3 4 5 Oso handia
-

Modu inkontzientean bada ere, ikasleak generoaren arabera modu desberdinean tratatzen dituzula uste duzu? (curriculum hezkutua...)

- Bai
 Ez

Gai honi zenbateko garrantzia aitortzen diozu? *

- Ezer ez 1 2 3 4 5 Erabatekoa
-

Bi generoko ikasleekin espektatiba berdinak dituzula uste duzu? *

- Bai
 Ez

Espektatibak edukitezkotan, ikasleen ikasketa prozesuan eraginik duela uste duzu? *

- Bai
 Ez

Espektatiba horiek zenbait jarrera zein balorekin lotu izan dira. Hala dela uste baduzu, lotu itzazu jarrera eta balore hauek dagokion generoarekin:

Descripción (opcional)

Arduratsuak? *

- Neskak
 Mutilak
 Kasuan kasu

Txintxoak? *

- Neskak
 Mutilak
 Kasuan kasu

Bihurriak/mugituak? *

- Neskak
 Mutilak
 Kasuan kasu

Azkarrak? *

- Neskak
 Mutilak
 Kasuan kasu

Txukunak? *

- Neskak
 Mutilek
 Kasuan kasu

Norekin zara zorrotzagoa? *

- Neskekin
 Mutilekin
 Kasuan kasu

Nota onak? *

- Neskek
 Mutilek
 Kasuan kasu

Nor zigortzen da gehiago? *

- Neska
 Mutila
 Kasuan kasu

Nori ematen zaio protagonismo/hitz egiteko aukera gehiago? *

- Neskari
- Mutlari
- Biei berdin

Nori esleitzen zaio gorputz hezkuntzako trebetasuna? *

- Neskari
- Mutlari
- Kasuan kasu

Nori esleitzen zaio matematikako trebetasuna? *

- Neskari
- Mutlari
- Kasuan kasu

Nori esleitzen zaio hizkuntzen trebetasuna? *

- Neskari
- Mutlari
- Kasuan kasu

Ikasleen heziketan, genero rol hauen agerpenean begirada ipintzen duzu? *

- Bai
- Ez

Gai honen inguruko formakuntzarik jaso duzu? *

- Bai
- Ez

Zure gelan edo ikastetxean birproduzitzen diren rol estereotipuen aurrean zerbait egiten duzu? hala bada, zer? *

Texto de respuesta larga

Gai honen inguruko formakuntzaren beharra sentitzen duzu? *

- Bai
- Ez

Genero rol estereotipatuak klasean lantzen dituzu? bai izatekotan, nola? (ariketa desberdinen bidez, klaseko eztabaidak, jolasak...) *

Texto de respuesta larga

II. Gurasoen baimenaren oharra

Guraso agurgarriak,

Itsasne Argüelles Maisterrena naiz zuen seme-alaben gelan praktiketan nabilen ikasle bat. Aurten magisteritzako gradua ateratzeko, gradu amaierako lan bat egin beharra dut. Horretarako, ikerkuntza bat egiten nabil eta zuen seme-alabei zenbait galdera egin nahiko nizkieke zuen baimena izanez gero, noski. Galdetegi edo inkesta hori anonimoa izango da eta biltzen dituzten datuak zenbait ondorio ateratzeko erabiliko ditut, besterik gabe. Galdera horiek korreo bidez bidaliko zaizkizue zuek horien berri izateko.

Beraz, zure seme-alabari baimena ematekotan honako hau bete ezazu:

Nire seme/alaba den _____-ri, inkesta hau egiteko baimena ematen diot.

Sinadura

Eskerrik asko alde zuretik.

Estimados padres y madres,

Soy Itsasne Argüelles Maisterrena y estoy llevando a cabo mis prácticas en el aula de vuestros hijos e hijas. Estoy en el último año de magisterio y para terminar con este grado tengo que hacer un trabajo de fin de curso. Para ello, estoy haciendo una investigación y me gustaría hacerles algunas preguntas a vuestros hijos e hijas, siempre y cuando tenga vuestra aprobación. Esta encuesta será anónima y los resultados que obtenga los utilizaré para sacar mis propias conclusiones, nada más. La encuesta se os mandará por correo para que vosotros y vosotras conozcáis las preguntas.

Por ello, si les dais permiso a vuestros hijos e hijas para hacer las preguntas, debéis rellenar lo siguiente.

A mi hijo/hija _____ le doy permiso para realizar esta encuesta.

Firma

Muchas gracias de antemano.